

NAOMI KLEIN

Distopia teknologikoa azkartu shock pandemikoa baliatuz

Giza kontaktua gutxienera murriztu duen jendartea. Tele-osasuna, tele-hezkuntza, tele-lana, gidaririk gabeko ibilgailuak, adimen artifizialean oinarritutako armadak eta muturreko kontrol soziala. Horretarako beharrezko bitarteko teknologikoak, azpiegiturak eta informazio fluxuak enpresa handien eskuetan eta kontrol publikotik at. Hori da Silicon Valleyko inperio teknologiko nagusiak aspalditik bultzatzen duen etorkizuna. Naomi Kleinek ohartarazi du shock pandemikoa baliatzen ari direla proiektu horretan sakondu eta erresistentziak indargabetzeko, Pantailaren Itun Berria inposatuz (*Screen New Deal*). *The Intercept* atarian argitaratu duen lan mardularen laburpena dakarkigu orriotara.

 Z. OLEAGA

Etorkizun horretan, gure etxeak ez dira inoiz gehiago espazio soilik pertsonalak izango, baizik eta, abiadura handiko konektibitate digitalaren bidez, gure eskolak, mediku-kontsultategiak, gure gimnasioak eta, estatuak hala erabakitzen badu, gure espetxeak. Jakina, gutako askorentzat, etxe horiek berak gure lantoki bihurtzen ari ziren, inoiz itzaltzen ez direnak, eta pandemiaren aurreko gure entretenimendu-leku nagusiak, eta zaintzapeko espetxeratzea ‘komunitate’goraka zihoan”. Pandemiak prozesu hori *warp* abiaduran (argia baino azkarrago mugitzeko forma teorikoa) azeleratzeko testuinguruu aproposa sortu du, Naomi Kleinen ustez. Etorkizun horretan, “gure mugimendu, hitz eta harreman bakoitza arakatu eta datuak atera daitezke, gobernua eta erraldoi teknologikoen arteko aurrekaririk gabeko akordio bidez”.

Kleinek New York Estatua eta Eric Schmidt jartzen ditu adibide bezala. Baina, ohartarazten du, “anbizioak edozein estatu edo herrialdetako mugetatik haratago doaz”. Maiatzean, New Yorkeko gobernadore Andrew Cuomo Schmidt aurkeztu zuen “estatuaren COVID-19 osteko errealitatea berrirudikatze” funtzioa duen batzorde baten buru. Schmidtek lehentasunak marraztu zituen:

“Tele-osasuna, urruneko ikaskuntza eta banda zabala. Orain aurrez daitezkeen irtenbideak bilatu behar ditugu, eta gauzak hobetzeko teknologiararen erabilera bizkortu”. Googleren CEO (zuzendari exekutibo, *chief executive officer*) ohia da Schmidt. Egun Defentsako Berrikuntza Batzordearen eta Adimen Artifizialari buruzko Segurtasun Nazionalako Batzordearen (NSCAI) lehendakaria da, besteak beste. Lehenbizikoak AEBetako Defentsa Ministerioa aholkatzen du –armadan adimen artifiziala gehiago erabili dadin–, eta NSCAI Kongresua –segurtasun nazionalerako eta ekonomiarako arriskuen aurrean, esaterako–. “Bi batzordeak Silicon Valleyko CEOez eta Oracle, Amazon, Microsoft, Facebook eta, noski, Schmidtek Googlen dituen lankideez beteta daude”, dio Kleinek. Gobernua aholkatzen duen aldi berean, Schmidtek milaka milioi ditu akzio eta inbertsioetan Googlen eta beste enpresa teknologikoetan.

TXINA MAMU ETA EREDU

Schmidtek denbora darama presio lana egiten AEBetako gobernua teknologian eta adimen artifizialean diru gehiago inbertitu dezan eta sektore publiko eta pribatuaren arteko harremanak estutzen. Txina mamu zein eredu gisa astintzen du horretarako: mamua, teknolo-

gikoki aurreratuagoa dagoenez AEBei aurre hartuko omen dielako munduan potentzia gisa; eredu, sektore pribatu eta publikoaren arteko aliantza ekonomiko eta politiko estuagatik. 2019ko maiatzeko aurkezpen batean, azaldu du Kleinek, NSCAI ohartarazi zuen Txinak aliantza publiko-pribatuak egiteko borondatea duela “zaintza masiboan eta datu-bilketan” –aurpegi azterketarako teknologia ikur–, eta hori potentzien arteko “lehiarako abantaila” dela. Azaroan, Kongresuarentzako txosten batean, NSCAI esan zuen AEBak eta Txina “lehia estrategikoan” daudela eta lehia horretan, “adimen artifiziala erdigunean egongo da. Gure segurtasun eta ekonomia nazionalaren etorkizuna jokoan dago”. Presio eta propaganda lana eremu publikoan ere egiten du Schmidtek. 2020ko otsailean “Silicon Valleyk Txinaren aurrean galdu lezake” artikulua argitaratu zuen *The New York Times*-en. “Gobernuaren eta industriaren arteko aurrekaririk gabeko elkarlanak” aldarrikatu zituen.

Kleinek distopia teknologikoarekiko erresistentziak daudela gogorarazi du, eta horrek mugak ezartzen dituela: “Duela oso gutxi arte, korporazio horien aurkako gaitzespen publikoa hazten ari zen. Amazonek New Yorkeko egoitza baterako planak bertan behera utzi behar

izan zituen tokiko oposizio irmoaren ondorioz. Googleren Sidewalk Labs proiektua [kontrolean oinarritutako hiri inteligenteak] etengabeko krisian zegoen, eta Googleko langileek berek uko egiten zioten aplikazio militarrekin zaintza-teknologia eraikitzeari". Artean ez zen COVID-19aren pandemiarik, eta osasuna ez zegoen politika horien beharra justifikatzeko kezken artean.

ERRESISTENTZIEN AURREAN, OSASUNAREN BANDERA

"Orain, neurri horiek guztiak (eta gehiago) datozen urteetan gurekin egongo den birus berri batetik babesteko dugun itxaropen bakartzat saltzen ari zaizkio jendeari", dio Kleinek. New York Estatuan konfinamendua ezarri eta bi astera artikulu berria argitaratu zuen Schmidtek *Wall Street Journal*-en. Artikuluan "Tele-guztian oinarritutako etorkizuneko ekonomia eta hezkuntza sistema" baten alde egiten zuen, dirua herritarrek jarriz eta lidergoa, aldiz, enpresa pribatuek: "Amazon bezalako en-

presek badakite nola hornitu eta banatu modu eraginkorrean. Zerbitzua eta aholkularitza eman beharko diete sistema informatikorik eta esperientziarik ez duten gobernuko funtzionarioei (...) Iraintzea maite dugun korporazio horien onura sakona da, komunikatzeko gaitasunari dagokionez, osasunari aurre egiteko, informazioa lortzeko. Pentsatu nolakoa izango litzatekeen zure bizitza Estatu Batuetan Amazon gabe". Eskertuta egon beharko lukete herritarrek Schmidten ustez, haiei mesede egiteko enpresa horiek egiten dituzten inbertsioengatik eta sortzen dituzten erremintengatik.

Kleinek ez du hitz egiten etorkizun urrunaz, eza AEBez soilik ere. Inperio teknologikoak egoera baliatzen ari dira orain, munduko bazter guztietan distopia teknologikoan aurrera egiteko. Australiako Gobernuak Amazon kontratatu du COVID-19aren jarraipenerako aplikazio sistema "polemikoaren" datuak gordetzeko. Kanadako Gobernuak ekipamendu medikuak posta zerbitzu

publikoaren bidez ez, Amazonen bidez mugitzen ditu.

Teknologiak osasun krisiari aurre egiteko egin ditzakeen ekarpenak ez ditu auzitan jartzen Kleinek, baina eztabaida politiko publikoa, gardentasuna eta kontrol demokratikoa eskatzen ditu. Erabakia politikoa baita, ez teknikoa: pantailetan inbertitu –arrakala digitala areagotuz, besteak beste– edo irakasleetan, azpiegitura hobeetan eta aire libreko hezkuntzan, esaterako. Beste horrenbeste osasunerako, eta jendarterako oro har.

"Konpainiak teknologikoek urruneko ikaskuntzarako, tele-osasunerako, 5Grako eta gidaririk gabeko ibilgailuetarako presio eta lobby kanpaina gogorra irabazten badute, beren *Screen New Deal*-a, ez da dirurik geratuko premiazko lehentasun publikoetarako, gure planetak premiaz behar duen *Green New Deal* (Itun Berde Berria) kontuan hartu gabe. Aitzitik, gailu distiratsu guztien prezioa irakasleen kaleratze masiboa eta ospitaleen itxiera izango da". ●

“Amazon bezalako enpresek zerbitzua eta aholkularitza eman beharko diete sistema informatikorik eta esperientziarik ez duten gobernuko funtzionarioei”

E. Schmidt

